

**Elkarrizketa**

**AITOR CASADO** Argazkilaria eta mendizalea



AITOR CASADO

# «Basoak dira Aizkorri mendi martxako protagonista»

**Legazpi** - Aizkorri barrera burutuko den mendi martxa aurkeztuko dute Legazpin Casadok martxari buruz osatu duen ikus-entzunezkoa emango dute, bihar, 20:00etan

**MIRIAM LUKI**

Aitor Casadok (Legazpi, 1968) *Legazpi, 400 urtez aske* egitasmoaren barruan antolatutako *Aizkorri barrera* mendi martxari buruzko ikus-entzunezkoa egin du. Urriaren 12an egingo da mendi martxa, baina bihar 20:00etan aurkeztuko dute. Legazpiko kultur etxean Casadok egundako ikus-entzunezkoa ikusteko aukera izango da.

**Mendia ala argazkigintza?**

Biak. Gero eta argazki gehiago egiten ditut. Azken hiru urteotan hiru kamerarekin ibiltzen ditut eta argazki pila ateratzen dut. Azken kamerarekin duela hilabete eta erdi erosi nuen, eta dagoneko bi mila bat argazki ateratu ditut.

**Izadi Zaleak elkarteko kide ere bazara, elkarteko webgunean ilusgai daude zure argazki asko.**

Bai, *mendiak.net* webgunean ere publikatzen ditut nire argazkiak. Aurreko igandean Beitia mendiko martxan batek baino gehiagok ezagutu ninduen, batzuetan ni agertzen naizen argazkiak igotzen ditudalako sarera.

**Nolantansartuzinen 'Aizkorri barrera' mendi martxaren antolaketan?**

400 Urtez Aske Batzordeko kideek bilerak egin zituzten eta haietan Izadi Zaleak elkarteko kideok parte hartu genuen. Ibilbideamarkatu beharra zegoen eta webgunea egin

beharra. Ni laguntzeko prest azaldu nintzen, eta besteak gabe hasi nintzen.

**Bi ibilbide izango ditu Aizkorri barrera mendi martxa, ezta?**

Luzea eta motza. Luzeak 31 kilometro izango ditu eta motzak 16. Mendi martxari jarri dioten izenari jarraituz, Brinkolan hasi eta Aizkorri buelta emango diegu. Gainera, jo gabe utziz. Ibilbide luzean Mandobidetik iparraldera joz Sancti Spiritu aino joango gara, handik San Adrian zeharkatuz Aizkorriko beste aldean pasatuko gara, eta Erdi Aroko galtzadatik Oltzako txabolaraino iritsiko gara. Ustez, hango zuhaitzak legazpiarrak dira.

**Oltzako zuhaitzak legazpiarrak dira?**

400 Urtez Aske Batzordeak antolatutako azken hitzaldian Mari Asunción Urzainkik esan zuenari jarraiki, Oltzako zuhaitzak Legazpikoak dira. Mendeko batzuetatik Lurra, ordea, ez da Legazpikoa. Airean dagoena legazpiarrena da baina lurra berez ez da gurea.

**Jaitsiera nondik egingo duzue?**

Kataberako meategietatik. **Ibilbide motza nondik nora da?** Oazurtzako leporaino elkarrekin joango gara denak, baina han ibilbide motzean parte hartzen dutenек Zegamako erromesek Arantzazura joateko erabiltzen duten antzinako bidea hartuko dute. Kataberatik jaitsi aurretik elkarteko dira berriz bi ibilbideetako partaideak. Barrendiolatik Brinkolara jaitsiko gara elkarrekin.

**Zer nolako paisaiak gozatu dute mendizaleak?**

Oro har basoak dira bi ibilbideetako protagonistak. Baso txikiak, erre-kasto ugari, karobi txikiaren bat

Kataberako meategiak edota gehienok ezagutzen dugun San Adrian kobazuloa.

**Ikus-entzunezkoan paisaia horien berri emango dute zure argazkiek, ezta?**

Bai. Ibilbidea mar katzer a joan ginenean argazki asko atera nituen, eta aurretik paraje horietan ateratako irudiak gehitu ditut. Guztiekin osatu dut ikus-entzunezkoa. **Zintzilikatuko al duzu ikus-entzunezkoa interneten?**

Bai, aurkezpenaren ondoren **Igandean beste mendi martxa bat egingo duzue: Legazpitik Segurara antzinako bideetik.**

Bai, aurkezpenaren ondoren **Igandean beste mendi martxa bat egingo duzue: Legazpitik Segurara antzinako bideetik.** Antzinako bideak berreskuratu eta bide asko eta usko garbitu dituzte igandeko mendi martxarako. 13 kilometro ditu, eta Segurako Udalak ongietorria egingo die mendizaleei. Motxon otik Azuñira eta handik legazpiarrok Aizpuru aldean dagoen *Barluua* esatean diogun tokira. Handik Zerainera iritsi eta Segurara izango da helmuga.

**'Aizkorri barrera' mendi martxan parte-hartze handia izango dela uste al duzu?**

Ez dakit, zaila da kalkulatzeko. Egia da Aizkorri izenak asko erakartzen dituela mendizaleak. Gainera, urriaren 12a jai eguna da eta parte-hartzea handitzen erabakitako du. Mendi martxan zirkuitu bat badago, eta egun horietan martxa garrantzitsurik ez dagoela uste dute Aizkorri mendiarren gaina ez jotzea ere aldeko osagai bat izan daiteke. Mendi martxen foroetan, ordea, bere presentzia badu dagoeneko *Aizkorri barrera* mendi martxa; eta *Google Earth*-en sartu nuenetik batek baino gehiagok jaitsi du ibilbidea. Seinale onak dira horiek denak.

# Lekaiok Ausa Gaztelura mendi martxa antolatu du datorren iganderako

**Urretxu** - Ausa Gaztelu Zaldibia eta Abaltzisketa artean dago. Aralariko mendilerroan, ia 1000 metri okotueran.

**M. LUKI**

Lekaiok kultur elkarrekin antolatuta Ausa Gaztelura mendi martxa izango da datorren igandean.

Goizeko bederatzi eta erdian Urretxuko Iparagi re plazan elkartuko dira mendizaleak eta antolatzaileak. Ausa joango dira. Ondoren «Goierriko eta Tolosaldeko nafarrekin bat egin» eta Ausa Gaztelurako iguera hasiko dute.

Gauri batean Nafarroako etresumako gaztelu izandako Ausa inguruan elkartu eta antolatuta dagoen ekimena burutuko dute, tartean nafar bandera ipintzea.

Gaztelutik jaitsi eta Lanaitzen

bazkaltzera gelditu nahi dutenek ondoko telefono zenbakira deitu behar dute aurretik: 607 111 202.

**Nafar gaztelua**

Zaldibia eta Abaltzisketa artean, Aralariko mendilerroan, ia 1000 metroa dago Ausa Gaztelu. Erdi Aroan Irutietik itsasorako bidea zainzen zuen gazteluak.

Lehen aldiz XII mendeko dokumentuetan azaltzen da. Gotorlekua zeregin bidea eta garai hartan Nafarroaren zen eskualde hartako jardueraren ekonomikoa zain zuten. Hego mendebaldetik Enirioko galtzadaz Ausa gazteluaren ingururik pasatzen da.

Gaztelak Nafarroako mendebaldeko konkistatu zuenean, Gipuzkoa barne, gaztelua muga bilhurtu zen eta hainbat liskar gertatu zen. Gaztelak derrigortu borroka egiten zuten gipuzkoarren eta nafarren artean.

**Laburrak**

**Adinekoentzako opor programak abian dira**

**URRETXU** - Imbersok antolatzen duen pentsiodunentzako oporretako 2008/2009 programan izena emateko epea zabalik dago. Eskaintza horretan parte hartu nahi duten pertsonak Urretxuko Udaleko Gizarte Zerbitzuetan edo Aterpe Jubilatuetan jaso dituzten izena emateko orriak Eskaearak aurkezteko epea ekainaren 13an amaituko da.

**'El viaje a ninguna parte' filma gaur Labeaga aretoan**

**URRETXU** - Gaur gaueko bederatzi eta erdian Fernando Fernán Gómezek zuzendutako *El viaje a ninguna parte* filma (1986koa) eskainiko du Butak 21 zinekubak. Urretxuko Labeaga aretoan. Juan Diego, Jose Sacristan eta Laura del Sol aktoreek parte hartzen dute. besteak beste.

**Haurrentzat 'gynkana' egingo dute etzi Legazpin**

**LEGAZPI** - Haurren eta gazteluaren aisialdian euskararen erabilera bultzatzeko programaren barruan Legazpiko Udaleko Gazteria sailak Sorgintxulo taldearen gidaritzapean *gynkana* erraldoia antolatu du etziko. 16:30ean hasiko da Latxartegi parkean, eta euria egingo dute ikastolako frontoian egingo dute izena gaur eta bihar eman behar da ikastetxeetan. Lehen Hezkuntzako 3, 4, 5 eta 6. mailako ikasleek parte har dezakete. *Gynkana* kalean egiten den taldekako jolas bat da.

**Doinua musika eskolan matrikula zabalik dago**

**LEGAZPI** - Legazpiko Doinua musika eskolan matrikula egiteko epea irekita dute. Eskolan bertan hartuko dituzte datorren kurtsoko ikasleena izena, maiatzaren 22ra arte.